

Merkatuaren segmentazioari dagokionez, lehenik, gure bezeroak nortzuk izango diren eta hauen ezaugarriak zeintzuk diren jakin behar dugu, horren arabera gure baliabideak modu ezberdinetan erabiltzeko edo funtzionamendu ezberdinak emateko. Enpresa bat sortzeko orduan kontuan izateko puntu garrantzitsuenetako bat da bezeroena, izan ere, bezeroak dira edozein negozio-ereduren funtsa, hauek gabe ezin baitu enpresa batek luzaro iraun. Gure kasuan, garraio elektrikoa duen edozein pertsona izan liteke bezeroa, patinetea, kotxea, motorra, edo bezeroak parking-ean utzi nahi duen garraio bide elektrikoa gordetzea (eta bezeroak garraioa kargatzea nahi badu) baita gure funtzioa.



[www.IngenioVirtual.com](http://www.IngenioVirtual.com)